# ISEI - IVEI

## Rs2.2.6. CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2. MAILAN: GIZARTEA ETA HERRITARTASUNA.

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

**Edizioa: 2013ko abendua**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

**Sarrera** 4

**Rs2.2.6.1 taula eta grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera** 6

**Rs2.2.6.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenak geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).** 7

**Rs2.2.6.3 taula eta grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan *(gizarte-errealitatea, herritartasuna, bizikidetza)* lortutako puntuazio zuzenak, orokorrak eta sexuaren arabera.** 8

**Rs2.2.6.4 taula eta grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, adin-egokitasuna irakasmailarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.** 9

## GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2010[1].

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2010ean gauzatu zen Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: sexua, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko egokitasuna (jaioturtearen arabera), geruza (hezkuntza-sarea[2] eta irakasteredua[3]) gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta etxeko eta probako hizkuntza.

EAEn 2010. urteetan, DBHko 2. mailako ikasleen % 46,2 sare publikoa zeuden, eta % 53,8, itunpeko sarean.

2010eko ebaluazio diagnostikoan *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia*n errendimendu-mailetako ehunekoak, handienetik txikienera ordenaturik, honako hauek izan dira: erdiko maila (% 51,6), maila aurreratua (% 30,9) eta hasierako maila (% 17,5). Maila aurreratuan nesken ehunekoa (% 36,8) mutilena (% 25,3) baino 11,5 puntu handiagoa izan da. Hasierako mailan mutilen ehunekoa (% 23,4) neskena (% 11,3) baino 12,1 puntu handiagoa izan da, eta erdiko mailan nesken ehunekoa mutilena baino 0,6 puntu handiagoa izan da bakarrik.

Batez besteko puntuazioak geruzen arabera aztertzen ditugunean, puntuaziorik altuena (270) itunpeko A ereduan izan dela ikus dezakegu, eta gero itunpeko B ereduan (258) eta D ereduan (253). Sare publikoan puntuaziorik altuena D ereduan (241) izan da, eta puntuaziorik apalena, B ereduan (233). Sexuaren aldagaia kontuan izanik, nesken batez bestekoa puntuazioa (260) mutilena (241) baino 19 puntu handiagoa da. Konpetentziaren hiru dimentsioei dagokienez (*gizarte-errealitatea, herritartasuna, bizikidetza*), neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte dimentsio guztietan. *Bizikidetzan* mutilek baino 21 puntu gehiago lortu dituzte, *herritartasunean*, 20 puntu gehiago, eta *gizarte-errealitatean* aldea 8 puntura murriztu da.

*Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: adinagatik dagokion irakasmailan dago (% 87,7), gurasoek goi mailako ikasketak bukatu dituzte (% 88,4), eta ISEK indize

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2010. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm
[2] EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.
[3] EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).

altua du (% 90,5). Etxeko hizkuntza euskara ez denean, erdiko mailan eta maila aurreratuan, proba gaztelaniaz egitea (% 90,4) euskaraz egitea (% 77,1) baino 23,3 puntu handiagoa da. Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: irakasmaila errepikatu du (% 60,8), gurasoek ez dituzte bukatu derrigorrezko ikasketak (% 64,5), eta etorkina da (% 73,4).

## Rs2.2.6.1 taula eta grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera**

| | | 2010 |
|---|---|---|
| HASIERA Errendimendu maila | Guztira | **17,5** |
| | Neskak | 11,3 |
| | Mutilak | 23,4 |
| ERDIA Errendimendu maila | Guztira | **51,6** |
| | Neskak | 51,9 |
| | Mutilak | 51,3 |
| AURRERATUA Errendimendu maila | Guztira | **30,9** |
| | Neskak | 36,8 |
| | Mutilak | 25,3 |




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010.

## Rs2.2.6.2 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenak geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).**

| | 2010 |
|---|---|
| A Publikoa | 236 |
| B Publikoa | 233 |
| D Publikoa | 241 |
| A Itunpekoa | 270 |
| B Itunpekoa | 258 |
| D Itunpekoa | 253 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010.

## Rs2.2.6.3 taula eta grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan *(gizarte-errealitatea, herritartasuna, bizikidetza)* lortutako puntuazio zuzenak, orokorrak eta sexuaren arabera.**

| | | 2010 |
|---|---|---|
| Guztira | Guztira | 250 |
| | Neskak | 260 |
| | Mutilak | 241 |
| *Gizarte-errealitatea* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 254 |
| | Mutilak | 246 |
| *Herritartasuna* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 260 |
| | Mutilak | 240 |
| *Bizikidetza* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 261 |
| | Mutilak | 240 |




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010.

## Rs2.2.6.4 taula:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, adin-egokitasuna irakasmailarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.**

| | | Ikasle % | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2010 | 2010 | | |
| ISEK | Maila baxua | **19,1** | 22,3 | 54,4 | 23,3 |
| | Maila ertain baxua | **21,5** | 23,0 | 54,1 | 23,0 |
| | Maila ertain altua | **28,4** | 19,0 | 52,2 | 28,8 |
| | Maila altua | **31,0** | 9,5 | 47,7 | 42,8 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmailarekin | **79,5** | 12,3 | 51,9 | 35,8 |
| | Adina **EZ** dator bat ikasmailarekin | **20,5** | 39,2 | 50,4 | 10,4 |
| Titulartasuna | Publikoa | **45,4** | 22,7 | 54,5 | 22,8 |
| | Itunpekoa | **54,6** | 13,2 | 49,2 | 37,6 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu **gabe** | **3,1** | 35,5 | 52,6 | 11,9 |
| | Derrigorrezko ikasketak | **15,8** | 24,5 | 56,9 | 18,5 |
| | Batxilergoa, HZ | **32,6** | 17,6 | 54,9 | 27,5 |
| | Goi mailako ikasketak | **41,4** | 11,5 | 47,0 | 41,4 |
| Jaioterria | Autoktonoa | **92,7** | 16,7 | 51,4 | 31,9 |
| | Emigratzailea | **7,3** | 26,7 | 54,0 | 19,4 |
| Familia-hizkuntza* **euskara** | Probaren hizkuntza euskara | **97,8** | 14,8 | 50,8 | 34,4 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | **2,2** | 11,8 | 48,7 | 39,5 |
| Familia-hizkuntza* euskara **EZ** | Probaren hizkuntza euskara | **63,0** | 22,9 | 54,4 | 22,7 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | **37,0** | 9,6 | 47,8 | 42,6 |

*2010. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zion etxeko hizkuntzaren galderari erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010.

## Rs2.2.6.4 grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.**




*2010. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zion etxeko hizkuntzaren galderari erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2009.